

Heriotzak %4,3 gehitu ziren 2008ko lehenengo hiruhilekoan

100 urte edo gehiagorekin hildakoak %27,3 ugaritu dira

2008ko lehenengo hiruhilekoan, Euskal AEn 5.376 lagun hil ziren, iazko aldi berean baino %4,3 gehiago, EUSTATEN datuen arabera. Lurraldeka, Bizkaian 2.960 pertsona hil ziren, %7,3 gehiago; 1.470 (%+7,3) Gipuzkoan, eta Araban 676, 2007ko lehenengo hiruhilekoan bezalaxe.

5.376 horietatik 2.746 gizonezkoak ziren eta 2.630 emakumezkoak; aurreko urteko hiruhileko berberaren aldean %6,3 eta %2,4 gehiago.

Hildakoen adinaz, ia %80k 70 urte edo gehiago zeuzkan; talderik jendetsuena 80tik 89ra, hildakoen %37,2. 100 urte edo gehiagorekin 56 pertsona hil ziren, 2007ko lehenengo hiruhilekoan baino %27,3 gehiago; horietatik %90 emakumeak.

2008ko lehenengo hiruhilekoan izandako heriotzen artean, 17 heriotza urtebetetik beheragoko haurrei egokitu zitzairen: 7 mutikori eta 10 neskatori.

2008ko lehenengo hiruhilekoko hazkunde begetatiboa negatiboa izan zen, 293 biztanle galdu ziren. Herrialdeka, saldo negatiboak izan ziren Bizkaian eta Gipuzkoan, 327 eta 57 biztanle galdu baitzituzten. Araban, oster, jaiotzak gehiago izan ziren heriotzak baino (+91).

1 Taula: Euskal AEko heriotzak sexuka, adin-taldearen arabera. Hiruhilekoen alderaketa.

	2008ko		Aurreko hiruhilekoa		Aurreko urteko hiruh. bera	
	1. hiruhilekoa		(2007ko 4. hiruhilekoa)		(2007ko 1. hiruhilekoa)	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
HERIOTZAK	5.376	100,0	5.003	100,0	5.152	100,0
Gizonezkoak	2.746	51,1	2.645	52,9	2.584	50,2
Emakumezkoak	2.630	48,9	2.358	47,1	2.568	49,8
HERIOTZA-KAUSA						
GUZTIRA	5.376		5.003		5.152	
Urtebete baino gutxiago	17	0,3	25	0,5	22	0,4
1-29	24	0,4	33	0,7	38	0,7
30-49	233	4,3	230	4,6	219	4,3
50-69	817	15,2	880	17,6	795	15,4
70-79	1.258	23,4	1.160	23,2	1.206	23,4
80-89	2.001	37,2	1.840	36,8	1.893	36,7
90-99	970	18,0	794	15,9	935	18,1
100 urte edo gehiago	56	1,0	41	0,8	44	0,9
GIZONEZKOAK	2.746		2.645		2.584	
Urtebete baino gutxiago	7	0,1	18	0,4	9	0,2
1-29	15	0,3	18	0,4	25	0,5
30-49	147	2,7	160	3,2	145	2,8
50-69	580	10,8	638	12,8	562	10,9
70-79	833	15,5	750	15,0	768	14,9
80-89	903	16,8	850	17,0	838	16,3
90-99	255	4,7	208	4,2	233	4,5
100 urte edo gehiago	6	0,1	3	0,1	4	0,1
EMAKUMEZKOAK	2.630		2.358		2.568	
Urtebete baino gutxiago	10	0,2	7	0,1	13	0,3
1-29	9	0,2	15	0,3	13	0,3
30-49	86	1,6	70	1,4	74	1,4
50-69	237	4,4	242	4,8	233	4,5
70-79	425	7,9	410	8,2	438	8,5
80-89	1.098	20,4	990	19,8	1.055	20,5
90-99	715	13,3	586	11,7	702	13,6
100 urte edo gehiago	50	0,9	38	0,8	40	0,8

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

 Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Martín González Hernández

+Tlf:+34-945-01 75 49 Faxe:+34-945-01 75 01

 Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es